



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIARIEN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Hau da nire Semea, nire maitea; berau dut atsegin”

2023ko urtarrilaren 8a  
Jaunaren Bataioa (A)

### Mateo 3, 13-17.

Jesus Galileatik Jordanera etorri zen, Joanengana, honek bataia zezan. Joanek ez zion utzi nahi eta esan zion: Neu naiz zuk bataiatu beharrekoa, eta zu zatoz niregana?

Baina Jesusek erantzun zion:

Uztazu orain, honela bete behar baitugu osoki Jainkoaren nahia.

Orduan, amore eman zuen Joanek.

Bataiatu eta berehala, Jesus uretatik irten zen. Hortan, zerua zabaldu zen, eta Jainkoaren Espiritua ikusi zuen Jesusek uso tankeran jaisten eta beregana etortzen. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: “Hau da nire Semea, nire maitea; berau dut atsegin”.

Neu naiz zuk bataiatu beharrekoa, eta zu zatoz niregana?

## EZ OTE GARA GEU ARI ESPIRITUA ITZALTZEN?

*Jose Antonio Pagola*

Ebanjelioko kontakizuna Jesus Jordan ibaian murgildu izanaz mintzo bada ere, gauzarik garrantzizkoena ez da Bataiatzailearen eskuz hartu duen ur-bataioa, baizik Aitak bidali dion Espiritua hartu izana.

Bibliaren burubidearen arabera, Espiritu honek bizi-arnasaz, bere maitasunez eta indar kreatzaileaz betez, jendea askatzera, eraldatzera eta bizia indartzera joan dadin. Horregatik, Jesusen lehen jarraitzaileek honelako profetatzat oroitzen zuten: «**Jainkoak Espiritu Santuaz gantzuturik... on eginez eman zuen bizitza**». Espiritu honek behar ditu arnastu Jesusen urratsei jarraitu nahi dietenak.

Gure egun hauetako krisi erlijioso halako indarrez ari da zabaltzen, non axola-eza erasaten ari baita jada fededunei berei. Zantzuak gero eta kezagarriagoak dira. Badira analizatzaileak bere burua kristau aitortzen duen jende baten fedea ere gesaltzen ari duen «barne ateismoa» salatzen dutenak.

Eliza ez da «esparru immunizatu» bat. Bada izatez Jainkoa kontuan hartzen ez duten betetzailerik. Aise bizi daiteke halako jendea hura gabe. Jainkoak ez du eraginik halakoen bizitzan, ez du Jainkoa bizi-arnasa. Jainkoarekin komunikaziorik ez duen erlijioa ari dira bizitzen. Praktikan, Jainkoa ez da ezer haientzat. Ohartu gabe, «Jainkoaren absentiaren kulturaren» ari dira kokatzen.

Geldo jarraitu behar ote dugu egiazko fedearen galtze progresibo honen aurrean, geure etxeetan eta elkarteetan beretan ere? Ez ote gara gero eta ez-axolago bihurtzen dena kutsatzen ari den erlijioso-axolarik ezaren aurrean? Ez ote da iritsia erreakzionatzeko ordua?

Agian, hau da lehenengo gauza: jabetzea geu garela, agian, Elizaren baitan Espiritua itzaltzen ari garenak, geure itsutasuna eta geldotasuna direla medio. Iraupen-senak eraginda, iragana gordetzeari emanik bizitzeko arriskua dugu; agian, bihotz-berritzeari etengabe emanik bizitzea baino erosoagoa delako, Espirituaren sormenari irekiak bizitzea baino erosoagoa delako.

Segur aski, gehiago arduratu beharra dugu Jainkoarekin harremanak izateko moduez, azaleko forma hutsalak, kanpotik bakarrik bizi ohi diren horiek alde batera utziz; Jainkoaren Misterio santuari ihes egiteko era izan baitaitezke horiek, haren aurrean espirituz eta egiaz jartzeko baino gehiago.

Ematen du inoiz baino premiazkoagoa dela sustatzea Kontzilio Vatikanoko II.ak «gogo biziz» eskatzen duen hau, hots, «*esku-hartze bete, kontzientea, eginkorra ospakizun liturgikoetan*»; zeren uste baitu «hori dela lehen iturria eta beharrezkoa, non xurgatuko baitu».